

BEER TONI

Mahatserriko aldizkaria
163 zenbakia • DOAN • 2013 martxo



BEGO ROJO

“Goi mailako artisauak izan zitezkeenak fabrika batean lanean ikustea ez da bidezkoa”

“Goi mailako artisauak izan zitezkeenak fabrika batean lanean ikustea ez da bidezkoa”



ELK
ELKARRIZKETA
BEGO ROJO

Bego Rojo Santutxun bizi izan zen bederatzi urte zituenetik, gurasoek denda baitzeukaten Santutxu kalean. 30 urterekin Arratiara joan zen eta, gaur egun, artisaua da, zeramika lantzen du Zeanurin daukan tailerrean. Produktu mota bi ekoizten ditu: Alde batetik, sukaldeko tresneria eta, bestetik, *linea rustikoa* deritzona (lanparak, lorontziak, euskal ikurrak eta abar). Era berean, tailerrak eman izan ditu eta Arbaso artisauen elkartean ere parte hartzen du, berdintasun arduraduna baita han. Orain, goizetan beste lan batean dabil eta umeak ere badituenez, artisautzari ezin dio nahi beste denbora eskaini. Artisauen egoerari eta kezkei buruz mintzatu gara berarekin.

Testua: Dabi Piedra
Argazkiak: Iñigo Azkona

Nola sartu zinen artisautzaren munduan?

Egia esan, aurrera egiteko bidea izan zen niretzat Gurasoek Santutxuko denda utzi zuten eta nik ba kamik ezin nuen aurrera atera. Zerbait egin behar nuen eta gustuko nuenez artisautza, ikastaro batzuk egin nituen Boluetan, Txurdinagan eta abar. "Edo orain edo inoiz ez" esan nuen, eta hemen nago.

Artisautzatik bizitzea zaila da?

Oso zaila da, faktore asko daude artisautzari kalte egiten diotenak. Artisauak ez du kobratzen egiten duen lanagatik merezi duena, jende asko ez dago prest prezioa ordaintzeko. Arazo zaila da, nik ez dakit zein irtenbide izan dezakeen honek, artisautza gure kulturaren zati da, baina gizarteak ez du hori ikusten. Dena dela, gustuko lana da. Beste lan bat neukanean, askotan egunak igarotzen ziren, elkarren atzetik, konturatu gabe, ermutina aspergarria zen. Artisau izanda ez da hori gertatzen, gogoia daukat altxatu eta lanean hasteko, eguna labur egiten zait, artisautzaren une guztiak disfrutatzen ditut. Gustuko lanak ez dirudi lana.

"Artisautzaren une guztiak disfrutatzen ditut"

Arbaso, euskal artisauen elkarteetan zbiltza. Zein da elkartearen zeregina?

Denok batuta egoteko balio dugu, elkar ezagutzeko. Ni sartu nintzenean, gogoratzen naiz, konfiantza egin nuela beste artisauekin. Azken finean, bakoitza bere tailerrean dago, isolatuta, eta Arbasori esker, elkar ezagutu eta laguntzen dugu. Zeramikako beste artisauekin informazioa konpartitzen dut, oso aberasgarria da. Euskal Herri osokoak gaude Arbasoan, gainera. Bestetik, azokai eta lehiaketei buruzko informazioa berehala heltzen zaigu Arbasotik eta oso lagungarria da.

Zer moduzko bizimodua da azokarik azoka ibiltzea?

Niri gustatzen zait; zapatu eta domeketan izaten da, aste osoa tailerrean egon eta gero nekagarria da, baina ederra. Herri herri ibiltzen gara, oso polita da, herriak jaietan egoten dira, giroa beti da ona. Azoketan, eskertzen dut tratua jendearekin, alaitasuna.

Zenbateraino da garrantzitsua azoketan egotea?

Hori artisauaren araberakoa da, baina asko hortik bizi dira eta beharrezkoa dute. Beste askorentzat zati bat da, tailerrean saltzen, klaseak ematen, leku guztietan egon behar da soldatatzeko bat ateratzeko. Nik neuk, azoketan tailerrak eman izan ditut, umeei erakustea edo torneoekin egiten den lana erakustea, jendeari erakargarri egiten zaio.

Orain, goizez beste lan bat daukazunez, artisautzan denbora gutxiago ematen duzu. Nahiko zenuke lehengo martxara bueltatzea?

Bai, ez dut utzi nahi eta ez dut baztertu. Baina ezin dut denarekin, lana, ume txikiak... Nire tailerrean gauza berriak egiteko gogoia daukat.

Errekonozimendu txikia daukazuela aipatu duzu lehenago.

Bai, ze batzuetan gure produktuak konparatzen dira ekoizpen industrialekoekin, adibidez plater bat, alderatzen da fabrikatzen egindako beste batekin, agian milaka egiten dituzte ho-

rrelakoak. Guk pieza bakarrak egiten ditugu, batzuetan antzeko serieak izaten dira, baina pieza bakoitza bakarra da, kreatibitatea da, gauza eskusiboa. Hori ezin da konparatu, "al boko dendan oso merke dago", dio jendeak. Baina, pieza bakoitza egiteko, atzetik daukan lana gogoan izan behar da.

Artisautzak atzetik badauka kreatibitatea, gainera.

Bai, nahitaez eboluzionatzen goaz eta beti gaude gauza berriak egiten, hemendik kolore berri bat, toketxo bat han, beti pieza politagoak egiteko. Gure arazoa ez da ideia falta, denborarik ez daukagu nahi dugun guztia egiteko! Arazo handi bat daukagu horrekin ze nik eza gutzen ditut artisauak ezin dutenak horretan jardun, beste lan batean dabilta, eta hori kultura galtzen ari gara! Obra bikainak egiten zizuten pertsonak bidean gelditu dira, hori galdu egin da, kreatibitate hori. Batek torlojuak egiten zituen pieza zoragarriak eta hori utzi



eta fabrika batean torlojuak estutzen amaitu zuen, talentua alferrik galtzea da hori. Jendea galtzen ari gara bidetik eta pena ematen dit.

Artisauen haserrea bideratzeko plataforma bat eratu zenuten.

Haserre Nago plataforma orain dela urte batzuk atera genuen, 35 artisau batu ginen eta pieza bana egin genuen, erakusketa ibiltari baterako. Baina pieza haiek, oso dotoreak izan arren, ez zeukaten erabilgarritasunik. Horrekin salatu nahi genuen gure lana ez dela baloratzen eta, horrela jarraituz gero, desagertu egingo dela.

Zer duzu sobera? Kamiseta asko

Zer duzu falta? Aurikular batzuk

Zer aldatuko zenuke? Pertson batzuek kontzientzia ekologikoa



Erakunde publikoek aintzat hartzen zaituztete?

Ez dago hartu eman handirik. Nik uste dut komunikazioa falta dela, beraiek eta gu batu behar gara, hitz egin, arazo bat dagoela esan behar diegu ze arazo bat dago. Ahalik eta artisau eta elkarte gehien batu behar gara era kudeekin, bakoitzaren beharrak desberdinak direlako. Erakunde batzuek badituzte laguntza planak, baina profesional gutxi batzuei entzunda bakarrik diseinatzen badituzte, beste asko kanpoan geratzen dira. Denon artean lanean jami behar dugu, gizarteari erakusteko zer lan egingen ari garen, guk ikusten dugu, baina gizarte osora heldu behar dugu, erakutsi zer alde dagoen gure lanaren eta fabrika baten artean, gure balioa erakutsi. Laguntza behar dugu eta baita kontzientziatzioa ere.

Arbasoko berdintasun arduraduna zara, zein da zure zeregina?

Batez ere, informazioa zabaltzen diet emakumeei, elkarteko beste emakumeei era kusten diet zer dagoen elkarteetan, Arbasoren komunikazio kanala aprobetxatzen dut berdintasunaren alorreko.

Emakume eta gizonen arteko berdintasunik badago artisautzan?

Gizarteko desberdintasunak geurean ere badaude. Esango nuke, gizartean dauden aldeak gure lan esparruan sartu direla eta gizartearekin batera konpondu behar dira.

Zer pentsatuko zenuke zeure umeei artisau izan nahi balute?

Ekonomikoki ez da ideia ona, zalantzarik ez! Baina kapa zak badira hortik bizitzeko, jo eta ke aurrera, babestuko nituzke. Ilusioa egingo lidake.

Aspaldiko kafetegi berri-berria



Plaza Barria, 6 - Bilbo
Tlf.: 944 151 671

info@bilbao-cafebar.com
www.bilbao-cafebar.com

